



Azpeitiko Udala



Azpeitiko Udala

IRAGARKIA

Udalbatzarrak 2020ko abenduaren 1ean eginiko bileran, hasiera batez onartu du 2021eko Aurrekontu Orokorra. Honako hauek osatzen dute bera: Udalaren Aurrekontu Propioak, Euskara Patronatua Erakunde Autonomoaren Aurrekontuak, Udal Kirol Patronatua Erakunde Autonomoaren Aurrekontuak eta Azpeitia Berritzen, S.A. Udal Sozietate Publikoaren Aurrekontuak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuen gaineko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontua jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- Erakutsita dagoen lekua: Kontuhartzailletza.
- Aurrekontua aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: hamabost lanegun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu zuten korporaziokideek.
- Inpugnatzeko arrazoiak: aipaturiko Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- Aurkezteko bulegoa: Udaletxearen Sarrera erregistroa bulego orduetan.
- Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar gabe.

Azpeitia, 2020ko abenduaren 2an
Alkate-Lehenkaria,

